



20/2022 Errege Lege Dekretua, abenduaren 27koa, Ukrainako Gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko eta La Palma uhartera berreraikitzen eta beste kalteberatasun-egoera batzuetan laguntzeko neurriei buruzkoa.

-BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ALDAKETAK. BEZ-

Energiaren arloko neurriak

- **2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitarteko ondorioekin**, BEZaren ehuneko 5eko tasa aplikatuko zaie gas naturalaren emate, inportazio eta Erkidego barruko erosketei, biomasatik datozen briketen eta «pelleten» entzegei, eta egurrerako zurari.

Aurreko paragrafoan aipatutako denbora-eremuan biomasatik datozen briketa eta pellet entzegei eta egurrerako zurari aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa ehuneko 0,625 izango da.

- **2022ko uztailaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arte** egongo dira indarrean, eta BEZaren ehuneko 5eko tasa aplikatuko zaie Erkidego barruko energia elektrikoaren entrega, inportazio eta eskuratzei, honako hauen alde:

a) Elektrizitate-hornidurako kontratuen titularrak, baldin eta kontratatutako potentzia (potentzia-termino finkoa) 10 kW-koa edo txikiagoa bada, horniduraren tentsio-maila eta kontratazio-modalitatea edozein izanda ere, fakturazio-aldiaren azken egunaren aurreko azken hilabete naturalari dagokion eguneko merkatuaren batez besteko prezio aritmetikoa 45 €/ MWh baino handiagoa bada.

b) Elektrizitate-hornidurako kontratuen titularrak, baldin eta elektrizitatearen gizarte-bonua jasotzen badute eta gizarte-bazterkeriako arriskuan dagoen kaltebera larri edo kaltebera larri izaera aitortuta badute, urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera (Kontsumitzaile kalteberaren figura, gizarte-bonua eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileak babesteko beste neurri batzuk arautzen ditu).

COVID-19ak eragindako osasun krisiaren eremuko neurriak

- **2023ko ekainaren 30era arte luzatzen da** Sendagaien Prezioei buruzko Ministerio arteko Batzordearen 2020ko azaroaren 12ko Akordioan (azaroaren 17ko 34/2020 Errege Lege Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusia) aipatzen diren botatzeko maskara kirurgikoen entzegei, inportazioei eta erkidego barruko erosketei BEZaren ehuneko 4ko zerga-tasaren aplikazioa.



- **2023ko ekainaren 30era arte luzatuko da** SARS-CoV-2aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren zenbait ondasun eta zerbitzu erkidego barruko entrega, inportazio eta eskuratzeei BEZaren ehuneko 0ko zerga-tasaren aplikazioa, bai eta abenduaren 22ko 35/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako zazpigarrenean aurreikusitako baliokidetasun-errekarguaren araubide bereziaren ondorioetarako ere:

a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1998ko urriaren 27ko 98/79/EE Zuzentarauan edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko apirilaren 5eko 2017/746 (EB) Erregelamenduan ezarritako betekizunekin bat datozen SARS-CoV-2 sistemaren in vitro diagnostikorako osasun-produktuen entregak, inportazioak eta erkidego barruko erosketak .

b) Europako Batzordeak baimendutako SARS-CoV-2aren aurkako txertoak ematea.

c) Aurreko a) eta b) idatz zatietan aurreikusitako entrega, inportazio eta erkidego barruko erosketekin zerikusia duten garraio-, biltegiatze- eta banaketa-zerbitzuak.

Aurreko atalean aipatutako denbora-eremuan, paragrafo horretan aipatutako ondasunen entreegi aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa ehuneko 0 izango da.

Oinarriko produktuak erosteko neurriak

- **2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eta 2023ko ekainaren 30era arteko indarraldiarekin:**

Honako produktu hauen entreegi, inportazioei eta erkidego barruko erosketei BEZaren ehuneko 5eko tasa aplikatuko zaie:

a) Oliba-olioak eta hazi-olioak.

b) Elikagai-pastak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa ehuneko 0,625ekoa izango da.

Hala ere, aplikatu beharreko zerga-tasa ehuneko 10ekoa izango da 2023ko maiatzaren 1etik aurrera, baldin eta martxoko azpiko inflazioaren urte arteko tasa, apirilean argitaratua, ehuneko 5,5etik beherakoa bada. Kasu horretan, eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa ehuneko 1,4koa izango da.

- BEZaren ehuneko 0ko tasa aplikatuko zaie honako produktu hauen entreegi, inportazioei eta erkidego barruko erosketei:

a) Ogi arrunta, bai eta ogi masa eta ogi arrunt izoztua ere, ogi arrunta egiteko baino ez direnak.

b) Irin okingarriak.



c) Edozein animalia-espeziek ekoiztutako esne mota hauek: naturala, ziurtatua, pasteurizatua, kontzentratua, gaingabetua, esterilizatua, UHT, lurrundua eta hautsa.

d) Gaztak.

e) Arrautzak.

f) Frutak, barazkiak, lekaleak, tuberkuluak eta zerealak, baldin eta produktu naturalak badira Elikadura Kodearen eta hura garatzeko emandako xedapenen arabera.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa ehuneko 0 izango da.

Hala ere, aplikatu beharreko zerga-tasa ehuneko 4koa izango da 2023ko maiatzaren 1etik aurrera, baldin eta martxoko azpiko inflazioaren urte arteko tasa, apirilean argitaratua, ehuneko 5,5etik beherakoa bada. Kasu horretan, eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun-errekarguaren tasa ehuneko 0,5 izango da.

Zerga-tasa murrizteak mesede osoa egingo dio kontsumitzaileari, eta, beraz, murrizketaren zenbatekoa ezin izango da erabili, ez osorik, ez partzialki, enpresa-etekinen marjina handitzeko, horrek dakarren prezio igoerarekin produktuen ekoizpen-, banaketa- edo kontsumo-katean, hargatik eragotzi gabe eragindako sektoreek erantzukizun sozialagatik beren gain hartzen eta iragartzen dituzten konpromiso gehigarriak. Neurri horren eraginkortasuna prezioen bilakaeraren jarraipena egiteko sistema baten bidez egiaztatuko da, alde batera utzi gabe Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere eskumenen esparruan egin beharreko jarduketak.